

ezagutzen al duzu Donostia?

San Lorenzo kalea

Gaur «*San Lorenzo kalea*» dena, lehen, era gurtxienez XVI mendetik honera, «*Lorenzo Kalea*» izenarekin ezagutzen da. Historikoki ez da ziurtatzen izen bereko santuaren ohorez jarria denik: ziuraski «*San Lorenzo*» popularki emandako izena aipatzearren, ofizialki deitu zen. Ez aspaldi, baina zoritxarrez galdua da «*Lorenzo*» izen polita. Bazuen kale honek izengoiti bat ere: «*Astokale*». Ziuraski izen hau, Bretxara etortzen ziren baserriarrek kale honetan astoak lotzen zituztelako zen. Gaur egungo kale honen trazaketa 1813. urteko sutearen ondorengo da, baina lehen hestunagoa zen: 1101eko zabalera zuen.

Bada zaharragorik den kale honen izenik ere: «*La Moleta*», «*Lamoleta*» edo «*Lamolleta*», dirudienez honela bait zuen izena XIV. mendean. «*Moleta*» izen gaskoia ote da? Hona hemen bere esanahia: «*Moleta*», «*Moulete*» = Torrita, omeleta, «*Mole*», «*Moule*» = Txikitu, apurtu. «*Moulet*», «*Mouléte*» = (Errota)-harria, (Errota)-harri txikia.

Kale honetan gertatutako pasadizu polita kontatzen digu Indalezio Bizkarrondo «*Bilintx*» donostiar bertsolari handiak:

*Lorenzo kaleko
kantoi kantoyian
anai arrebak ziran
elkartu batian;
arrebak igaririk
zeukala ark dirua,
eskatzia zitzayon
etorri burura;
esan ziyon frantsesez:
«Donemua le artzan».
Ua nere boltsara
eta andik artzan.*


Bertso hau Antonio



Zabalaren «*Bilintx*, bertso ta lan guztiak» liburuan azaltzen da. Berak argitzen duenez, Pepe Artolak

eskuz idatzitakoetatik hartua da.

JOSU TELLARIDE



Ezkerreko argazkian, San Lorenzo kalearen Bretxako aldean dugun errotxuloa. Eskubi aldean San Lorenzo kalea Narrikatik ikusita.

Donostiako kantutegia

J.I. ANSORENAK proposatua



Guzia Garaitu

Harriturik dezagun
erabat aitortu
gizonak gaur duela
guzia garaitu.

1
Zer egin ahal dezakeen
españolak beti,
urez eta lehorrez,
noiz ez da ikusi?
Elkano eta Okendo,
ez esan besterik
horiek zituen ondo
munduak miretsi.

2
Donostia zuretzat
mentura onekoak
dira soinu ta kanta
hotsdun haundikoak.
Burdizko bidea da
honela hasitzen,
zorionak ditugu
dudagabekoak.

Hain errima berezia duten bertso hauek Donostian kantatu ziren 1858. urtean, ekainaren 22. ean, en la solemne inauguracion del Ferrocarril del Norte, orduan argitaratu zen partituran azaltzen denez. Mursika Jose Juan Santestebanek (1809-1884) jarri zion. Bertsoak norenak diren ez da agertzen. Bertso gehiago dira, baina ez dute aparteko interesik. Harrigarriena «*gizonak gaur duela guzia garaitu*» da. Ez zekiten gizarajoek zer zetorkien atzetik!